



## **Giro ederrean, askari batean bildu dira jatorri anitzeko hainbat emakume**

- **Emakumeen Jabekuntza eskolaren baitan biltzen den jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturalak antolatu du askaria.**
- **Migrazioaren bizipena partekatzeko espazio libre eta malgu bat izateko helburuz biltzen da taldea.**
- **Jatorri ezberdineko 20 bat emakume elkartu ohi dira bertan, gehienak Latinoamerika eta Afrikakoak.**

**Andoainen, 23-11-29.-** Askari batean elkartu dira astelehen honetan jatorri anitzeko emakumeen elkargune multikulturalean elkartu ohi diren emakumeak. Giro eder eta goxo batean pasa dute arratsaldea Irunberri kultur elkartean, ezagutzak eta esperientziak partekatu eta egunerokotasunetik apur bat aldenduz.

Emakumeen Jabekuntza eskolaren baitan biltzen da jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala; astero bildu ohi dira emakume hauek, besteak beste, migrazioaren bizipena partekatzeko espazio libre eta malgu bat izateko helburuz. Kontzientzia hartzeko eta norbanako zein kolektiboaren eraldaketa erdiesteko prozesua da.

Helburua da berdintasuna eta kultura-aniztasuna landuz, osasun fisikoa, emozionala eta gure herriarekiko errotzea hobetzea, isolamendutik irtetea, euskal gizartea ezagutzea eta gure jatorrizko herrialdea ezagutaraztea.

20 bat emakume bildu ohi dira bilkura hauetan, eta jatorri anitzekoak dira: Paraguai, Ghana, Peru, Maroko, Mexiko, Nigeria, Ekuador, Cabo Verde...

Hainbat jarduera egin ohi dituzte urtean zehar, gela barruan zein kanpoan; horietako bat izan da aipatu askaria. Hainbat emakumek euren jatorrietako jakiak prestatzen erakutsi diete gainerakoei, eta ondoren dastatu egin dituzte.